

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdi-Ekialdea

DATA: 2018/11/20

Saila	Laburpena	
Obrak	Errebalgo auzokide batek esan du ez dela beharrezkoa espaloia zabaltzea 15 eta 23 zenbakien artean. Dioenez, ez du inolako arazorik konponduko eta, gainera, ez du aukera emango bigarren lerroan aparkatzeko.	Azkenean, ez ziren obrak egin.
Alkatetza	Arraguetako bizilagun batek galdetu du ea zergatik ez diren Gabonetako argiak jartzen kale horretan.	Aurten auzo guztietan jarriko dira Gabonetako argiak.
Obrak	Jardiñeta inguruko auzokide batek galdetu du ea noiz amaituko diren Jardiñetarako igogailuaren obra.	Obrak apirilean amaitu ziren eta martxan dago orduz geroztik.
Obrak	Kexu da jarraitzen dutelako esku hartu gabe Pageitik Jardiñetarako irisbideak hobetzeko-lanetan.	Pagaegitik Jardiñetarako sarbidea hobetzeko obrak maiatzean hasi ziren eta amaitu egin dira dagoeneko.
Obrak	Galdetu du ea noiz zabaldu behar den ibilgailuentzako sarbidea Jardiñetatik Ardantzaraino.	2019ko Gabonak baino lehen zabaldu zen.
Udaltzaingoa	Salatu du Jardiñeta auzoko bizilagunek sufritzen duten aparkaleku falta.	Lekuaren konfigurazioa dela eta, oraingoz, ezin da aparkaleku gehiago egin.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Jardiñetako garbitasun faltagatik. Dioenez negargarria da, jendeak asko zikintzen duelako, pintadak, txakur-kakak, eta abar.	Mankomunitateak jakinarazi du astean 5 bider garbitzen dela. Gizalege kontu bat da. Bestalde, pintadei dagokienez, kentzen ari dira, urtean zehar egiten diren programen bidez. Urrian, epea zabaldu da berriro ere komunitateek beren fatxada pribatuetatik pintadak kentzea eskatzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdi-Ekialdea

DATA: 2018/11/20

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Salatu du Sakun ingurua txakur-kakaz beteta dagoela. Soluzio bat ematea eskatzen du.	Aparte samar dagoen dagoen leku bat denez, zailago egiten du kontrolatzea, baina txakur-kakak jasotzen ez dituen jendea ikusiz gero, salaketa jartzen da.
Zerbitzuak	Jardiñeta 9 zenbakiko iturri parean falta den pibotea berriz ere jartzea eskatu du. Esan du ibilgailuek espaloi gainean aparkatzen dutela.	Ingurua ikuskatu da eta ez da falta piboterik. Dena den, zenbaki horretan ibi bat dago; beraz, pibotea hor bazegoen, berriz ere ibi-lizentziaren jabearen erantzukizuna izango da.
Zerbitzuak	Arane kaleko bizilagun batek dio, Txontarako igoeran, marra horia gaizki margotu zela.	Azpikontrataturako enpresak, akats batengatik, linea hori aipatu duen puntuan pintatu zuen, eskatu zitzaaien tartean pintatu beharrean. Berehala zuzendu zen.
Zerbitzuak	Galdetu du ea zabor-dukiontziek aho zabalagoa izan dezaketen.	Aranen, igoerako eskuinaldean dagoen multzoko dukiontzia errefusa-zatikikoak eta organikoak dira eta igluak daude paper, kartoi eta ontzietarako. Azken horiek ahoa zabalagoa dute.
Zerbitzuak	Eskatu du dukiontzia jartzea etxeko tresna elektrikoetarako.	Garbigune puntu horiek Urkizun, Amañan eta Egogainen jarri dira.
Udaltzaingoa	Kexu da Bista Eder kalean, Portalea inguruan, jende askok gaizki aparkatzen duelako.	Ibilgailu asko ibiltzen dira gunen horretan. Inguruan hainbat zamalan-gune egon arren, ohikoa da bigarren leerroan aparkatzea. Eragozpenak sortzen dituztenean gidariak salatu egiten dira eta, hala behar izanez gero, garabiarekin erretiratzen dira ibilgailuak.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdi-Ekialdea

DATA: 2018/11/20

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Salatu du Txomoko parkearen egoera txarra. Dioenez, oxido-orbanak daude.	Arazo hori gertatzen da ezin delako gunea garbitu presiopeko ur-makinarekin, horrek iragazketa-arazoak sortzen baititu parkinean.
Obrak	Galdetu du ea Jata parean dagoen oinezkoen pasabidea goratu ahal izango den.	Ezin da zebra-bide hori goratu, pasabidea garajeetarako sarbideko gunee batean dagoelako.
Zerbitzuak	Araneko auzotar batek jakinarazi du bi argi-foko hondatuta daudela San Andres ikastetxeko sarreran.	2018ko azaroan konpondu ziren.
Udaltzaingoa	Galdetu du ea Otaola hiribidea izan daitekeen 30 k/ordukoa.	Aztertzen ari dira leku batzuetan 30 km/orduko abiadura jartzea.
Zerbitzuak	Jakinarazi du Merkadonaren irteeran dagoen kutxatila solte dagoela.	2019ko otsailean konpondu zen.
Zerbitzuak	Eskatu du Otaola hiribideko aroztegiaren baranda sasiz garbitzeko.	Abenduan kendu ziren bide publikoa inbaditzen zutenak. Gainontzekoak garbitzeko, errekerimendu bat egin zen, gunee pribatu bat delako. 2019ko urtarrilean erretiratu ziren.
Zerbitzuak	Kexu da Norica inguruan argi gutxi dagoela, arbolek luminariak estaltzen dituztelako. Eskatzen dute argiak baxuago jartzeko arazo hori konpontzeko.	Arbola horiek 2018ko abenduan kimatu ziren.
Obrak	Jardiñetako bizilagun batek galdetu du ea noiz eraiki behar den Jardiñeta 29, 31, 33 eta 35 zenbakietara joateko igogailua.	Proiektua idazten ari dira. Aurreikusita dago obrak datorren urterako egitea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdi-Ekialdea

DATA: 2018/11/20

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Salatu du Jardíñetako edukiontzien zirrikitua txikiagoa dela eta, horregatik, jende askok edukiontzietatik kanpo lagatzen dituela poltsak, eta ingurua zikin lagatzen dutela.	Edukiontzi horiek jarri ziren inguruan obrak egiten ari zirelako. Dagoeneko lehengoak jarri dira berriz ere.
Zerbitzuak	Kexu da Jardíñetan edukiontzi gutxi dagoelako, kontuan izanik zenbat bizilagun bizi den inguruan.	Mankomunitateak ez du beharrezko ikusten edukiontzi gehiago jartzea. Hala ere, adierazi du gehiago jarri nahi izanez gero, aztertu beharko litzatekeela non jarri, horrek aparkamendu plaza gutxiago ekarriko lukeelako.
Obrak	Galdetu du Jardíñeta, Aldatze eta Ardantza kaleak lotzeko bidearen proiektuaz.	Ez dago aurreikusita espaloiak eta galtzadak aldatzea gune horretan.
Obrak	Kexu da El Casco ostetik Jardíñetara joateko asfaltatu-zatia asfaltatu barik dagoela.	Asfaltatu da, Pagaegi eta Jardíñeta arteko irisgarritasuna hobetzeko obrarekin.
Udaltzaingoa	Eskatu du piboteak jartzea 21-23 zenbakien parean. Adierazi du espaloia estua dela eta kotxeak gainean aparkatuta egoten direla.	Piboteak jarri dira dagoeneko.
Zerbitzuak	Bizilagun batek galdetu du ea lur azpiko edukiontziak jar daitezkeen Jardíñeta inguruan.	Mankomunitatearen joera da lur azpiko edukiontziak ez jartzea, mantentze-lana zaila delako.
Obrak	Kexu da Ibargainetik Matxariarako asfaltatua egoera txarrean dagoelako.	Aztertu da eta ez dute uste egoera txarrean dagoenik.
Udaltzaingoa	Espaloia handitzea eskatu du, zebra-bide bat eraikitzea Orbea inguruan dagoen tunelean, Matxariatik Bittor Sarasketara doan espaloian.	Urtea amaitu baino lehen, txosten bat egin behar da, Obra eta Trafiko sailarekin batera, zebra-bide goratu bat eraikitzeko aukerei buruzkoa; asmoa da 2020an gauzatzea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdi-Ekialdea

DATA: 2018/11/20

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Salatu du bisibiltate gutxi dagoela Ibagain kalea Matxariarekin lotzen duen STOPean. Galdetu du ea ispilurik jar daitekeen edo bisibiltatea beste era batera hobetu.	STOP seinalea ahalik eta gehien aurreratu zen. Lekuaren konfigurazioa dela-eta, ez da posible ispilu bat jartzea. Gidariak kontziente izan behar dira ezen STOP seinale baten aurrean gelditu behar direla eta egiaztatu ez dela lehentasuna duen ibilgailurik etortzen.
Udaltzaingoa	Kexu da errepide-markak falta direla Matxaria kale osoan.	Txosten bat egingo da ikusteko ea posible den seinalizazio horizontala.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du argia hobetzea Jardiñetako goi aldeko parkingean. Dioenez, sarrerako aldapan, farolak argi gutxi ematen du.	2019ko urtarrilean gune horretako azterketa bat egin zen; hondatuta zegoena konpondu eta argiteria ondo geratu zen. Eguzki-farolari dagokionez, sarritan geratzen da bateriarik gabe.
Alkatetza	Galdetu du ea OTA sistema jarri behar den Jardiñetan.	Kontu hau Trafiko Batzordearen barruan aztertu zen, eta ondorioztatu zuten ez zela OTA sistema ezarriko auzoetan. Orain funtzionamenduan dagoen eremuetan mantenduko da.
Obrak	Informazioa eskatu du Pagaegitik Jardiñetarako bidearen proiektuari buruz. Galdetu du ea auzotarrei kontsultatuko zaien.	Udaltzaingoarekin batera aztertu da trafikoaren noranzkoa Pagaegitik Jardiñetara. Berrantolatu egin beharko da Casco-ko etxearen urbanizazioarekin.
Zerbitzuak	Jakinarazi du Errebalgo lehen eskailera parean eskailera-maila bat solte dagoela.	2019ko urtarrilean konpondu zen eskailera-maila hori.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdi-Ekialdea

DATA: 2018/11/20

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek jakinarazi du Jardifietara igotzeko eskailera mekanikoen azken zatia arrazoirik gabe geratzen dela, baita pertsona bat bertan dagoenean ere.	Arazo hori gertatzen da, batez ere, inguru horretako auzotar batzuek geratu egiten dituztelako eskailerak jaisteko eskailera gisa erabiltzeko.
Zerbitzuak	Ibarkurutze kaleko bizilagun batek iturriaren garbiketa integrala eskatu du.	Martxoaren 4an, iturria faltx makinarekin garbitu zen. Maiz egiten da lan hori.
Obrak	Kexu da Errebal espaloiko baldosek min egiten dietela oinei.	Errebal kalearen berrurbanizazio lanekin batera aldatzea dago aurreikusita.
Alkatetza	Eskatu du argi gehiago egoteko Koliseoan Gabonetan.	Aurten auzo guztietan jarriko dira Gabonetako argiak.
Udaltzaingoa	Aldatze 2 komunitateko administratzaileak salatu du higiezinaren espaloian aparkatzen dutela. Adierazi du espaloi gainean aparkatzen dutela.	Han aparkatzen duten ibilgailuk modu puntualean aparkatzen dute bertan.
Hirigintza.	Kexu da Pitxargain baserriaren egoera txarragatik. Dioenez, kaskoteak jausteko arriskua dago.	Pitxargain baserria jabetza probatukoa da, eta jabetzari dagokio, ondorioz, baserria baldintza onetan mantentzea. Bestalde, Udalak aztertu egiten du ekidin behar diren arrisku egoerak dauden ala ez. Pitxargain ingurua aztertzen denean, ez zen lursailetan arriskurik ikusi. Segurtasunari eragin diezaioketen baldintzak sortzen badira, eskatzen da Hirigintza sailari jakinaraztea, berriz ere aztertuak izan daitezen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdi-Ekialdea

DATA: 2018/11/20

Saila	Laburpena	
Obrak	Araneko bizilagun batek salatu du Arane Errekatxurekin lotzen duen bideko mendi-mazelaren egoera.	Egonkortu egin zen; horren ardua Bolinguako Unitatearen sustatzailearena izan zen, hura baita lurraren jabea.
Zerbitzuak	Jakinarazi du Txomoko parkean dauden jardineren ureztapena hondatuta dagoela eta ura ateratzen dela etengabe orbanak sortuz.	Ureztatzea aztertu ondoren, egiaztatu zen ez dagoela isuririk. Ura bakarrik isurtzen da euria egiten duenean, eta ez aspertsoreengatik
Udaltzaingoa	Kexu da Araneko garajeen erabiltzaileek duten bisibilitate txarraz, ispiluen norabidea gaizki jarrita dagoelako.	Garajeen kasuan, ispiluak jartzea eta mantentzea titularren erantzukizuna da.
Udaltzaingoa	Salatu du Txomoko garajeen irteeran ez dela ezer ikusten kotxeak egoten direlako aparkatuta eta edukiontziak daudelako.	Baldin eta ibilgailuek garaje-irteera oztopatzen badute, eragindako pertsonak Udaltzaingoarekin jar daitezke harremanetan, salaketak jartzeko eta, behar izanez gero, garabiak ibilgailuak erretiratzeko. Edukiontzien kokapena dela eta, arazo gutxien ematen dituen gunea da, garaje-irteeran bisibilitatea murriztu gabe.
Zerbitzuak	Estaziño kaleko bizilagun batek esan du ez dela jasotzen edukiontzitik kanpo geratzen dena (poltsak eta altzariak) eta, gainera, edukiontzi berdeak izaten segitzen dutela Bittor Sarasketan.	Mankomunitateak jakinarazi du altzariak egunero jasotzen direla. Astelehenetan, jasotako deien arabera egiten da, eta erretiratu egiten dira bai abisua eman dutenak bai besteak ere. Bestalde, kale horretan dauden edukiontziak herriko gainerakoek berdinak dira.
Udaltzaingoa	Kexu da txakurren txizak hiri-altzarietan eragiten dituen kalteengatik.	Ez dago egiaztatuta halako kalterik dagoenik. Nolanahi ere, ez dago ordenantzarik txakurrei bide publikoan txiza egitea debekatzen dienik.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdi-Ekialdea

DATA: 2018/11/20

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Azaldu du farolak amaraunez beteta daudela. Garbitzea eskatu du.	Argiak erre ahala garbitzen dira. Dena den, egiaztatzen bada zikinkeria dela-eta farolak ez duela argirik ematen, garbitu egiten da.
Alkatetza	Galdetu du ea zer asmo duen Udalak Bittor Sarasketako epaitegi zaharreko eraikinarekin.	Oraingoz, ez dago ezer zehaztuta, baina hainbat alternatiba aztertzen ari dira, hala nola gazteentzako alokairuko etxebizitzak edo belaunaldi arteko espazio bat.
Udaltzaingoa	Proposatu du kalez jantzitako poliziak egotea txakur-kakak kontrolatzeko.	Egiten dira kontrolak kaleko jantzita.
Zerbitzuak	Auzotar batek esan du Eibarren geratzen diren lur azpiko edukiontziak kendu behar direla eta haien ordeztu txipa eta pedala dutenak jarri.	Edukiontzi motak aldatzea konplexua da, bide batzuetan ezingo lirakeelako edukiontzi-multzoak jarri. Halaber, jartzen ari dira edukiontziak txip eta pedalarekin.
Zerbitzuak	Eskatu du sarriagotan eguneratzeko Mankomunitatearen web-orria.	Abisua igorri zitzaion Mankomunitateari eta esan zuten kontuan izango zutela.
Obrak	Errebalgo bizilagun batzuek funtzio anitzeko eraikinaren obren erritmoa salatu dute. Azalpenak eskatu dituzte.	Obrak maiatzean hasi ziren atzera ere eta 15 hilabeteko exekuzio-epea dute.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdi-Ekialdea

DATA: 2018/11/20

Saila

Laburpena